

# GIPUZKOAKO ORIENTAZIO LIGA



# 22

Otsailak 13	<b>Pasaia</b>	Urbana
Martxoak 6	<b>Gazume</b>	Mendia
Martxoak 20	<b>Azpeitia</b>	Urbana
Apirilak 3	<b>Jaizkibel</b>	Mendia
Maiatzak 8	<b>Oñati</b>	Urbana
Ekainak 5	<b>Xoxote</b>	Mendia



# ARAUDIA

## ARAUDIA

Gipuzkoako Orientazio Taldeak (GOT) orientazio kirola bultzatzeko asmoarekin Gipuzkoako Orientazio Liga abiatuko du VI. Aldiz 2022 urtean. Ligaren izaera herrikoia izango da, eta helburu nagusia, familia, gazte zein helduek orientazio kirola ezagutu eta gozatzea izango da.

Urtean zehar Gipuzkoan ospatuko ditugun 6 orientazio lasterketa ezberdinez osatutako liga izango da. Lasterketa bakoitzean, lortutako emaitzaren arabera, parte hartzaileei ligarako baliaagarriak diren puntuak banatuko zaizkie. Liga amaieran lortutako puntuekin sailkapen orokor bat egingo da.

### Egutegia:

- 2022ko otsailak 13an, Pasaian. Hiriko orientazio proba.
- 2022ko martxoak 6an, Gazumen. Mendiko orientazio proba.
- 2022ko martxoak 20an Azpeitian. Hiriko orientazio proba.
- 2022ko apirilak 3an Jaizkibelen. Mendiko orientazio proba.
- 2022ko maiatzak 8an, Oñatin. Hiriko orientazio proba.
- 2022ko ekainak 5ean Xoxoten. Mendiko orientazio proba.

### Ibilbideak:

Lasterketa bakoitzean hiru ibilbide ezberdin proposatuko dira, ondorengo ezaugarriekin:

	Ezaugarriak	Zeinentzat
Horia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskakizun fisiko txikia.</li> <li>• Iparrorratzik gabe egin daitekeen ibilbidea.</li> <li>• Ibilbide gehiena bide edo bidexketatik egin daiteke.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehengo aldiz parte hartzen dutenentzat</li> <li>• Familian ume txikiekin.</li> <li>• Gaztetxoak (&lt;14 urte)</li> </ul>
Laranja	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskakizun fisiko ertaina.</li> <li>• Iparrorratza zenbait momentutan lagungarria izan daiteke.</li> <li>• Elementu lerrokatuetan (errekak, hesiak, bideak,..) lagundu gaitezke Ibilbideko zati gehiengan baina ez beti.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Noizbait orientazio frogaren bat egin dutenentzat.</li> </ul>
Gorria	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskakizun fisiko handia.</li> <li>• Ibilbide teknikoa.</li> <li>• Iparrorratzaren oinarritzko erabilpena ezagutu behar da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Orientazio froga ofizialetan parte hartu dutenentzat (Ipar liga, rogainak, eta abar).</li> </ul>

### Sailkapenak:

3 ibilbide hauekin, 6 sailkapen egingo dira.

- Ibilbide Horia
  - Familiak.
  - Gaztetxoak (neskak eta mutilak bateratuta) (<14 urte)
- Ibilbide laranja
  - Gizonezkoa
  - Emakumezkoa
- Ibilbide gorria
  - Gizonezkoa
  - Emakumezkoa

Norbaitek urtean zehar ibilbide ezberdinetan parte hartuko balu, sailkapen ezberdinetan agertuko litzake, bakoitzean lortutako puntuekin.

Ligako sailkapena egiteko puntu gehien lortutako 4 froga hartuko dira kontutan.

### Puntuak banatzeko irizpidea:

Lasterketa bakoitzean maila bakoitzeko korrikalariak puntu kopuru bat bereganatuko dute ondoko irizpidearen arabera:

1. sailkatua	20 puntu
2. sailkatua	19 puntu
3. sailkatua	18 puntu
4. sailkatua	17 puntu
5. sailkatua	16 puntu
6. sailkatua	15 puntu
7. sailkatua	...

### Izen ematea eta parte hartzea:

Izena emateko kostua, hurrengoa izango da.:

- FEDO aseguruak izanik 5€ pertsonako edo familiako (familien kasuan).
- Aseguruak ez baduzu (eguneko aseguruak behar dutenek alegia) 7€. Pertsonako eta familien kasuen kide bakoitzak 2€ ko gainkostua izango luke.

#### EXTRAK

- Mapa gehigarria: 2€.
- Pintza alokairua: 2€.

(Adibidez 2 seme alaba eta aita-amak parte hartu nahi badute mapa bat eta pintza batekin. 5€ familiak izen ematea + 8€ aseguru kostea (4 pertsona) + 2€ pintza alokatzea. Guztira. 15€)

Bakarka edo taldean parte hartu daiteke.

Taldeko inskripzio bakarra kobratuko da. Hala ere taldeak mapa bat baino gehiago nahi izanez gero hauek aparte kobratuko zaizkie.

Gomendatzen da **izen ematea froga aurreko ostegunean** egitea beranduenez. Antolaketak mapa gehiago inprimatu arren, proba egunean, aldez aurretik izena eman dutenentzako mapak soilik ziurtatzen ditu.

Izena emateko [GOTorientazioa.org](http://GOTorientazioa.org) helbidearen bitartez egingo da.